

## GIL 150 Maeztuko asfaltoak



Maeztuko asfalto-harrobiaren aire zabaleko ustiatagia.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42°43' 12,31" N  
Long.: 2°25' 46,13" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 546.712,64 m  
Y: 4.729.889,32 m



### Nola iritsi

Maeztutik, A-132 errepidetik jarraitu behar da hego-ekialderantz, Santikurutze Kanpezurako norabidean. Atauri herrira iritsi eta kilometro batera, harrobiak ikus daitezke ezkerretara. Bidegurutzean, harrobietara doan bidea hartu behar da.

### GILaren deskribapen laburra

EAEko asfalto-kontzentrazio handiena da; hura ustiatzeko, Espainiako lehen asfalto-fabrika sortu zen, 1857an.

EAEko beste diapiro batzuetan gertatzen den bezala, diapiroaren material ostalariak asfaltoa izaten dute. Asfalto hori arrokaen poro eta hausturetan sartzen da; arroka, askotan, erlazioa izaten du diapiroaren beraren igoera halozinetikoari elkartutako de-



Asfaltoa erraz ikus daiteke arrokararen hausturetan.

formazioarekin. Harria guztiz tindatuta dago beltzez, asfalto-usain berezia du, eta eskua zikintzen du. Gehienetan, metaketa horiek ez dute interes ekonomikorik izaten. Hala ere, Maeztuko diapiroaren kasuan, inpregnazioak Campaniarreko kalkarenita-bolumen handi bati eragin zion, eta aukera eman zuen ustiaketa garrantzitsu bat abiatzeko, 1856an hasi eta oraindik dirauena.

Asfaltoaren banaketa irregularra da diapiroaren ertzetan, hegoaldeko eta ekialdeko ertzetan kontzentratzen baita. Aldiz, iparraldeko eta mendebaldeko mugetan ez dago material horren metaketarik, nahiz eta materialak behar bezain porosoak izan asfalto-inpregnazio on bat hartzeko.

Ustiaketa aire zabalean hasi zen 1857. urtean, Korres aldean, gaur egun abandonatua dagoen San Idelfonso meatzearen inguruan. Geroago, meatze gehiago zabaldu ziren; haien artean, nabarmentzekoa da Peña del Frailen dagoena, gaur egun oraindik ere ustiatzen ari baita. Lurpean hasi zen ustiaketa, ganbera eta pilare bidez, baina, azken urteetan, aire zabalean egiten ari da. Material gordinaren % 9-15 asfaltoa da, eta zoladuretarako panak eta lauzak egiteko erabiltzen da.

## Behatzeko punturik onena

*In situ.*



Zatirik inpregnatuenak erabat aseta daude; beltzak dira, eta erraz desegiten dira eskuetan erabilia.

### Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 33, GIL 147, GIL 110, GIL 113.
- **Gaiari dagokionez:** bat ere ez.

### GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				●
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean ●	Potentziala	Martxan ●
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					